

Ramon Etxezarreta

PSE-EEKO KIDEA ETA DONOSTIAKO ALKATE ORDEA

Benedikto argudio?

A

zken boladan eta gehiago, ez dut esango beti baina ia, harritu egiten naute Euskal Herriko eliza katolikoaren lerroetatik ateratzen den zenbait iritziren gordinak eta gogortasunak. Katolikotasunaren ezau-garria da nonbait, fede fedea eta zalantzarik eza. Zalantzarik eza esan dut eta gutxiago bes-tea epaitzerakoan, hurkoarekiko maitasuna eta kupida ez baitira ziur aski erlatibitatearekin batera errazak.

Honen adibideak aipatzerakoan burura datozkidan lehenak Dionisio Amundarain eta Gotzon Garate jaunak dira. Zeinen garbi duten jaun hauek euskararen defentsa (ez euskararena baka-rrik nire ustez baina) eta zein irmo eusten dioten hatzari honek salatua erakutsi behar duenean. Miresgarri egiten zaizkit. Eta zein ugari den egun Euskal Herrietan, katolikoan eta bes-teetan, jaun hauek bezala pentsatzen duen jende kopurua, bai orainaz, bai lehenaz. Akats nagusi bat du niretzat jarrera honek. Garaian egin ez ziren kritiken berrikuspen ulerkorra da nagusi eta garaia egin ez zitzaizkion erruaren penitentzia ordainarazten zaigu zerikusirik ez genuenoi ere. Kontua laburtuz zera da, autokritika-rako joera urria dela, eta kritikatik orduan salbatzen ziren beraiek salbatzen direla orain ere, nahiz eta kontrakoa dirudien.



DANI BLANCO

Eliza ama santa katolikoak, Kixoteren garaian bezalatsu jarraitzen du, eliza izaten eta ama izaten. Borroka ideologikora deitzen duela Benedikto XVI.ak eta politikari katolicoi exijitzen diela lege demokratikoen gaine-tik lege katolikoak daudela defendatzea? Beti egongo da euskal eliza bat, euskaraz hitz egi-ten duena, jatorra eta zuzenzalea izango dena, eliza izanik eliza izango ez dena. Emakumea-rena, abortoarena, dibortzioarena, hezkuntza-rena, homosexualena, eta abarrena... Ez omen

horiek injerentzia politikoak, bete-behar "magisterialak" baizik. Ez da ulertzen. Ulertzen ez den bezala Espainiako elizan gertatzen eta adie-razten ari direnak. Horiek, nonbait, gure eliztarrentzat espainiarrak dire-lako gertatzen dira, ez eliztarrek dire-lako. Autodeterminazioa eta euskal gotzaindegia ez daude zalantzan eli-zan, Espainian, baizik.

Euskal Herriko Autonomia Erki-degoko Lehendakariak hala zioen 2006ko ekainean United States Insti-tut of Peace-en "Bake prozesua Eus-kadin" izenburuz emandako hitzal-dian: "...zintzotasunez eskertzen ditugu Euskal Herriko bake proze-suaren aldeko adierazpenak, Europa-ko Batasunak zein Benedikto XVI.ak berak egini-koak".

Nik badut hala ere itxaropenik prozesuetan. ■

Dionisio Amundarain eta

Gotzon Garate jaunak: zeinen

garbi duten jaun hauek

euskararen defentsa eta zein

irmo eusten dioten hatzari

honek salatua erakutsi behar

duenean

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza

Libertad



Sin ira aukeratu zuten ereserkitzat PPkoek manifaren oskoltzat.

Sardana estetikan antolaturik ekin zioten ager-tokian bukaera espektakularra eman nahian trabesari, agintea berreskuratzeko ahaleginari. Jendetza-ren aurrean ohi denez harro, goitik beherako begiradaz elkarrri eskuak emanda ekin zioten kantatzeari balsaren erritmoan gorputzak batera mugitzea joko. Ez nituen begiak denetan ezarri, erdian zegoen Rajoy-renganaino joan zitzaizkidan-eta. Irrigarria. Irrigarria oso. Ezin izan nuen ahotsen artean berea identifikatu, baina bere mugi-mendu baldar eregietan ikusi nuen ez zela gauza erritmo-

an besteekin batera jarduteko, garai batean herriko plazan edozein zela ere jotzen zuten musika, moilan olatu txikien eraginen menpean zabuka egoten den baporearen antzera mugitzen ziren dorpee-nen itxura hartu nion. Talenturik gabeko eginahalak beti ere uxatu banau eta borondate hutsak erreparoa sortu horren kaltea irudikaturik, Rajoi hor horrela ikusteak ondorio hontara eramane nau: honekin jai zagok. Boron-daterik ez diot ukatuko, eginahaletan diziplinarik ere ez, bereak aurrera ateratzeko hala-holako gaitasunik ere ez, baina ezeren lidergoa eramateko gauza denik ere ez. Horrelako patroiarekin barkua hondora. Hori seguru. ■